

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

2022 urterako udal zergak eta tasak arautzen dituzten ordenantza fiskalak eta udal prezio publikoak arautzen dituen ordenantzak aldatzea. Behin betiko onespina. (Espediente: 2021/18/S893)

2022 urterako udal zergak eta tasak arautzen dituzten ordenantza fiskalak eta udal prezio publikoak arautzen dituen ordenantzak aldatetaren hasierako erabakia, 2021eko irailaren 27 egunean Udaltzako Osoko Bilkuran hartutakoa, jendaurrean ikusgai egoteko epea igaro ostean eta horren barruan ez direnez erreklamaziorik aurkeztu, aipatutako erabakia behin-betikoa bihurtu da, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak Erregulatzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16.3 eta Toki Erregimeneko Oinarrien erregulatzaileraren den, Apirilaren 2ko, 7/1985 Legearen 49.c) artikuluan ezarritakoaren arabera (azken hori uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 50. Artikuluarekin erlazionaturik).

Aipatutako 41/1989 Foru Arauaren 16.4 artikuluan eta 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan aurreikusitakoa betez, behin-betikoa bihurtu den erabakia oso-osorik argitaratu da eta 2022ko urtarrilaren 1 egunetik aurrera ezarriko da:

“Gaia: 2022 urtean aplikatu beharko diren udal zergak eta tasak arautzen dituzten ordenantza fiskalak eta prezio publikoak arautzen dituzten udal ordenantzak aldatzea

Udal Kudeaketa Arloko Ekonomia eta Zerga Kudeaketa Zerbitzuan izapidetu egin da 2022 urtean aplikatu beharko diren udal zergak eta tasak arautzen dituzten ordenantza fiskalak eta prezio publikoak arautzen dituzten udal ordenantzak aldatzeko aurreproiektua.

Egindako aldatetarako, funtsean, zerga-tasen igoerari buruzkoak dira, finantza-saneamenduko irizpideen arabera, bai eta tasa berri bat ezartzeari eta testua tributuetako baten kudeaketa-sistema hobe batera egokitzeari buruzkoak ere.

Ordenantza fiskalak aldatzeko edota indarrrik gabe uzteko prozedura uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren, Toki Ogasunei buruzkoaren 15. eta 16. artikuluetan ebatzitakoa da. Prezio publikoak dagokienez, aipatutako Foru Arauaren 50. artikuluan bat, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedatutako prozedura aplikatu beharko da.

Espedientean jasota geratu dira, batetik, Udal Kudeaketa Arloko Ekonomia eta Zerga Kudeaketa Zerbitzuko goi teknikariak 2021ko uztailaren 30an emandako txostena eta udal idazkari nagusiak 2021eko irailaren 9an emandakoa.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 1985/7ko Legearen 22. artikuluan emandako ahalmenak erabiliz eta alde aurretik Udal Kudeaketa Arloko Osoko Bilkurako Gaien Informazio Batzorde Iraunkorraren (Zerbitzua: Antolakuntza Publikoa eta Zerbitzu Orokorrak eta Zerbitzua: Ekonomia eta Zerga Kudeaketa) irizpena izanda, Osoko Bilkurak hau:

EBATZI DU

Lehenengoa. Ematea hasierako onespina 3. ordenantza fiskalaren, trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga arautzen duenaren aldatetari, jarraian azaltzen diren xehetasunekin bat: 6. artikuluan 1. Paragrafoan ezarritako Zerga honen tarifak igotzea 5 igotzea.

Bigarrena. Ematea hasierako onespina 7. ordenantza fiskalaren, zerbitzu publikoen prestazioa eta aktibitateak egiteagatik tasak arautzen dituenaren aldatetari.

Erabaki da aldaketak sartzea, ordenantzaren eranskinaren barruko artikulua hauetan:

- I. HIRIGINTZAKO LIZENTZIAK EMATEKO JARDUERA: Tasa horren tarifak igotzea 2 igotzea.
- II. ESTABLEZIMENDUAK ZABALDU ETA AKTIBITATEAN JARDUTEKO LIZENTZIAK EMATEKO ZERBITZUA: Tasa horren tarifak igotzea 2 igotzea.
- III. HIRI-HONDAKIN SOLIDOAK BILTZEKO ETA EZABATZEKO ZERBITZUA: Tasa horren tarifak igotzea 5 igotzea.
- V. IBILGAILUAK BIDE PUBLIKOTIK KENTZEA ETA HORIEN JAGOTEA UDAL GORDETEGIAN: Tasa horren tarifak igotzea 2 igotzea.
- VII. UDAL HILERRIKO ZERBITZUAK EMATEA: Tasa horren tarifak igotzea 2 igotzea.
- VIII. HILTEGIA ETA HARAGIAREN GARRAIO ZERBITZUEN PRESTAZIOA: Tasa horren tarifak igotzea 2 igotzea.
- IX. DOKUMENTUAK JAULKITZEKO ZERBITZUA: Tasa horren tarifak igotzea 2 igotzea.
- X. UDAL LIBURUTEGIA: Tasa horren tarifak igotzea 2 igotzea.
- XI. UDALAREN KIROL-INSTALAZIOAK ERABILTZEA: Urteroko abonamenduei buruzko Tasa horren tarifak igotzea 2 igotzea.

Tasa horren tarifa hauek ezartzea zerbitzu hauei dagokienez:

GRANJA KIROLDEGIA		
2. ERABILTZAILA EZ BAZKIDEEEN SARRERA	Euro	
— 18 urtez gorakoak	4,00	
— 14-17 urte artekoak	2,45	
— 5-13 urte artekoak	1,45	
— 5 urtetik beherakoak	Dohainik	
3. ALOKAIRUEN PLUSAK	Argi barik euro	Argiz euro
— Kantxa (ordubete)	26,15	29,30
— Zeharkako kantxa (ordubete)	13,70	17,45
— Squash (ordubete)		6,25
— Squash (10 ordu)		39,90
— Sauna (45 min.)		4,45
— Sauna bonoa		29,85
— Gimnasioa (ordubete)		15,60
— Gimnasioa (10 ordu edo gehiago, ordu bakoitzeko prezioa)		8,30
— Erabilera anitzeko aretoa (ordubete)		10,40
— Erabilera anitzeko aretoa (10 ordu edo gehiago, ordu bakoitzeko prezioa)		5,20
4. IKASTARO PLUSAK	Euro	
— Mantentze-Gimnasia/aerobika/gihargintza/tai-txia/joga (hiru hilabete, 3 ordu astean)	26,65	
— Igeriketa haurrak (bi hilabete, 2 ordu astean)	12,25	
— Igeriketa helduak (bi hilabete, 2 ordu astean)	25,45	

BESTE INSTALAZIOEN ALOKAIRU PLUSAK		
5. GARDEAKO KIROLDEGIA	Argi barik euro	Argiz euro
— Tenisa aterpe gabe (ordu 1)	2,25	3,95
— Tenisa aterpean (ordu 1)	2,55	4,45
— Frontoia aterpean (ordu 1)	2,55	4,45
— Aterpeko padela (ordu 1)	4,40	7,55
— Belar artifizialeko zelai osoa (ordu 1)	39,75	46,45
— Belar artifizialeko zelai partziala (ordu 1)	15,60	20,80
6. ARETAKO FRONTOIA	Argi barik euro	Argiz euro
— Frontoia (ordu 1)	5,10	8,70
7. LATIORROKO FRONTOIA		
— Frontoia (ordu 1)	2,20	5,40
8. ELLAKURI: ATLETISMO PISTA	Dohainik	
9. ELLAKURI FUTBOL ZELAIA (ordu 1)	39,75	46,45
10. SAN MARTIN FUTBOL ZELAIA (ordu 1)	39,75	46,45
	Euro	
11. ERABILTZAILA EZ BAZKIDEEN SARRERA BESTE INSTALAZIOETAN (Latiorro Frontoian izan ezik)	1,35	

12. ELLAKURI: IGERILEKU ATERPE GABEAK		
	EURO	EURO
Denboraldi osoko PASEA Bazkide ez direnentzako		
— 14 urte arteko seme-alabadun familiak	40,75	
— 18 urtez gorakoak	30,35	
— 14-17 urte artekoak	20,00	
— 5-13 urte artekoak	11,90	
— 5 urtetik beherakoak	Dohainik	
SARRERAK	Lanegunak euro	Jaiegunak euro
— 18 urtez gorakoak	3,25	4,30
— 14-17 urtera artekoak	1,70	2,75
— 5-13 urtera artekoak	1,10	1,70
— 5 urtez beherakoak	Dohainik	Dohainik

XII. ANIMALIAK JASOTZEA: Tasa horren tarifak igotzea 2 igotzea.

XIII. AZTERKETAK EGITEKO ESKUBIDEAK: Tasa horren tarifak igotzea 2 igotzea.

Hirugarrena. Ematea hasierako onespena 8. ordenantza fiskalaren, Udalaren herri jabariko ondasunen berariazko erabilera edo ustiapen eta baliatze bereziagatik tasak arautzen dituenaren aldaketari.

Erabaki da aldaketak sartzea, ordenantzaren eranskinaren barruko artikulua hauetan:

I. ERABILERA PUBLIKOKO LURRETAN SALTOKI, BARRAKA, SALMENTA-ETXOLA, IKUSKIZUN EDO JOLAS-INSTALAZIOAK JARTZEA: Tasa horren tarifak ehuneko 2 igotzea.

II. QUIOSCOS EN LA VÍA PÚBLICA: Tasa horren tarifak ehuneko 2 igotzea.

III. BIDE PUBLIKOAN MAHAIK, AULKIAK, BEILATOKIAK, E. A.: Tasa horren tarifak ehuneko 2 igotzea.

IV. IBILGAILUAK FINKETARA ESPALOIAN ZEHAR SARTZEA ETA BIDE PUBLIKOAN IBILGAILUETARAKO APARKALEKUA GORDETZEA: Tasa horren tarifak ehuneko 2 igotzea.

V. BIDE PUBLIKOAN EDO HERRI-LURRETAN ZANGA, ERRETEN, ZULO, AZTERGUNE EDOTA ANTZEKOAK ZABALTZEA ETA, ORO HAR, BIDE PUBLIKOETAKO ESPALOI EDO ZOLADURA ALTXATU ETA OKUPATZEA OBRA-HONDAKIN, HESI, ZURKAITZ, ASTO EDOTA ALDAMIOZ: Tasa horren tarifak ehuneko 2 igotzea.

VI. BIDE PUBLIKOETAKO ZORUA, LURPEA ETA HEGALA OKUPATZEA: Tasa horren tarifak ehuneko 2 igotzea.

VII. BIDE PUBLIKOETARA IRTEN EDO FATXADA LERROA GAINDITZEN DUTEN MAILADI, OLANA, BALKOI, BEGIRATOKI ETA ANTZEKO INSTALAZIOAK: Tasa horren tarifak ehuneko 2 igotzea.

IX. AZOKA PLAZAKO SALTOKIEN ERABILPENA: Tasa horren tarifak ehuneko 2 igotzea.

Testu hau sartu da 2. Ostegunetako azoka tradizionalaren eta baserritarren azoka eta hurbiltasunaren salmenta postuak:

“Tasa kobratzeko, zergapetutako zerga-egitateak jasotzen dituen errolda erabiliko da, ordainketa subjektu pasiboan titulartasuneko banku-kontuan helbideratuz, eta sei hilean behingo bi ordainagiritan gauzatuko da.”

X. UDAL JABARIKO HERRI-BIDEEN ERABILERA BEREZIA: Tasa horren tarifak ehuneko 2 igotzea.

XI. MERKATARITZAKO GAIEN EDO BIDAIARIEN GARRAIOKO IBILGAILUEN APARKALEKUA ERABILTZEA, ARANTZAR UDAL APARKALEKUAN: Tasa horren tarifa hauek ezartzea zerbitzu hauei dagokienez:

2022		
Partzela handiak	147,90	Euro/hileko
Partzela txikiak	118,32	Euro/hileko
Pasadizokoak	8,20	Euro/egun

Aldatu egiten da tasa horren hobaria, eta honela idatzita geratzen da:

“BONIFIKAZIOAK

Zerga-egoitza Laudion duten pertsona fisiko eta juridikoek tarifaren zenbatekoaren ehuneko 25eko hobaria izango dute 2022eko ekitaldian.”

XII. AUTO-TAXIAREN GARRAIO ZERBITZUA: Tasa horren tarifak ehuneko 2 igotzea.

XIV. UDAL BARATZE EKOLOGIKOEN LAGAPENA: Tasa horren tarifak ehuneko 2 igotzea.

XI. AUTOKARABANAK APARKATZEA ETA HORIETAN GAUA IGAROTZEA: Tasa horren tarifa hauek ezartzea zerbitzu hauei dagokienez:

2022	
ZERBITZUA	EURO/FITXA
Egonaldia	Doan
Ur-hornidura eta ur gris eta beltzak hustea	3,10
Elektrizitatearen erabilera (fitxa 1/12 ordu)	3,10

XVI. UDAL-POLIZIAK APARKATZEKO ERRESERBA: Ondoren azaltzen den tasa berria erantsi da eta gainontzekoa birzenbakitu da. Ondorioz, honela geratu da idatzita:

“XVI. UDAL-POLIZIAK APARKATZEKO ERRESERBA.

APLIKAZIO-ARAUAK

1. Tasa honen zergapeko egitatea Laudioko udalerrian bide publikoak aparkatzeko, edozein motatako salgaiak kargatzeko edo deskargatzeko, eta ibilgailuentzako beste aprobetxamendu edo erabilera pribatibo batzuk erreserbatzeko aprobetxamendu berezia eratu eta egitea izango da.

2. Tasa honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 35. artikularen 3. paragrafoan aipatzen diren pertsona fisiko

eta juridikoak eta entitateak, eta, bereziki, baimena zein pertsona edo entitatearen izenean eman eta pertsona edo entitate horiek edo aprobetxamenduaren onuradun direnak, dagokion baimenik gabe egin bazen.

3. Tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dira irabazi-asmorik gabeko elkarte eta erakundeak, beren jarduera gauzatzean egiten duten erabilera pribatiboari dagokionez.

TARIFAK

ZERBITZUA	EURO
Udaltzaingoak prestatutako aparkatzeko erreserba	83,54

Laugarrena. Ematea hasierako onspena 9. ordenantza fiskalaren, udal zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeagatik prezio publikoak arautzen dituenaren aldaketari.

Erabaki da aldaketak sartzea, ordenantza eranskinaren barruko artikulua hauean:

I. UDAL LANGILEEK ZERBITZUAK EMATEA ETA LAUDIO UDALAREN MATERIALA NAHIZ INSTALAZIOAK ERABILTZEKO BAIMENA: Udal-lokalak edo -instalazioak erabiltzeagatik prezio publikoak ehuneko 2 igo dira, jarraian zehazten den emaitzarekin.

II. UDAL ARGITALPENETAN PUBLIZITATEA SARTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK: Ehuneko 2 igotzea.

III. KULTURA ETXEKO IKASTAROAK: Prezioak ehuneko 2 igotzea.

IV. LUDOTEKA: Prezioak ehuneko 2 igotzea.

VI. ZINEMATOGRAFIA PROGRAMAK: Honako zerbitzu hauei dagokienez, prezio hauek ezartzea:

2022	
	EURO
Estreneko filmak (karteldegian)	3,10
Beste filma batzuk	2,10

VII. BERDINTASUNERAKO IKASTAROAK EDOTAILERRAK: Honako zerbitzu hauei dagokienez, prezio hauek ezartzea:

	LAUDION ERROLDATUAK	LAUDION EZ ERROLDATUAK
20 ordu arteko iraupena	3,10	5,20
20 ordutik gorako ikastaroak	5,20	7,30

XIII. ETXERAKO LAGUNTZA ZERBITZUA EMATEA: Prezioak ehuneko 2 igotzea.

Bosgarrena. Uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16.1 artikuluan ezarritakoarekin bat, hasierako izaera duen erabaki hau udaletxeko iragarkien taulan jarriko da ikusgai hogeita hamar (30) eguneko epean, interesa dutenek espedientea aztertu ahal izan dezaten eta egoki iritzitako erreklamazio eta arrazoibideak aurkeztu ditzaten.

Seigarrena. Jendaurreko erakusketa hori ALHAOn iragarriko da eta epea zenbatzen hasiko da iragarkia argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera. Halaber, jendaurrean erakusteko iragarkia Lurralde Historikoan zabalkunderik handieneko egunkariren batean ere argitaratuko da.

Zazpigarrena. Onspen-erabaki hau behin betikotzat hartuko da jendaurreko erakusketa epean bere aurkako erreklamaziorik aurkezten ez bada. Erreklamazioak aurkezten badira, Udalbatzaren osoko bilkuran ebatziko dira.

Dena den, behin betiko erabakia edo automatikoki behin betiko bihurtutako behin behineko erabakia eta ordenantzen testu osoa edota ordenantzen aldaketena ALHAOn argitaratuko dira, eta, beraz, ez dira indarrean sartuko 2022ko urtarrilaren 1era artea, edo, hala dagokionean, argitaratu arte.”

2022 urterako udal zerga, tasa eta prezio publikoak arautzen dituen ordenantza aldaketaren behin-betiko erabakiaren kontra, interesdunek administrazioarekiko auzibide-errekurtsua tartegarri ahal izango dute dagokion jurisdikziopeko salan, ALHAOn erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bi hilabeteko epean.

Laudio, 2021eko azaroaren 22a

Alkate-udalburua

ANDER AÑIBARRO MAESTRE